# Xedapen Orokorrak

**ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA**

**6200**

328/2010 DEKRETUA, azaroaren 30ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzeko Dekretua aldatzen duena.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 24ko 607/2009 Dekretuaren bidez, Garraio eta Herri Lan Sailburuordetza sortu zen, hiru zuzendaritzarekin: Garraio Zuzendaritza, Garraio Azpiegituraren Zuzendaritza eta Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritza.

Garraio Zuzendaritzak, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoak aireko garraioaren arloan dituen eskumenak dauzka esleituta, Dekretuaren 14.1.j) artikuluaren arabera.

Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzari berriz, honakook esleitu zitzaizkion: lurreko eta aireko garraioaren azpiegituretako jarduerak burutzeko behar diren hirigintza antolamenduko planak eta bestelako langaiak egin eta aldarazteko ekimena [15.1.d) artikulua]; lurreko eta aireko garraioaren azpiegituretako proiektuak egin eta onartzeko ekimena [15.1.e) artikulua]; lurreko eta aireko garraioaren azpiegituretako obrak zuzendu, ikuskatu eta kontrolatzea [15.1.f) artikulua]; lurreko eta aireko azpiegituren arloan jardunak egikaritzeko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak desjabetzea [15.1.h) artikulua]; lurreko eta aireko garraioaren azpiegituraren alorreko ikerketa eta teknologia garapena bultzatzea [15.1.j) artikulua]; EAEko Errepideen Plan Orokorra arautzeko proiektuen espedienteak eta lurreko eta aireko garraioaren gaineko azpiegituren arloko planen aurrerapena eta proiektua egitea [15.1.l) artikulua]; EAEko Errepideen Plan Orokorra eta lurreko eta aireko garraioaren azpiegituren gaineko arloko planak gainbegiratzea [15.1.o) artikulua]; Euskal Autonomia Erkidegoaren eta gainontzeko lurralde administrazioen artean errepide, trenbide eta aireportuei buruzko gaietako lankidetza eta koordinazio ekonomiko, tekniko eta administratiboa gauzatzeko bideak proposatu eta prestatzea [15.1.r) artikulua].

# Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES**

**6200**

DECRETO 328/2010, de 30 de noviembre, de modificación del Decreto por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes.

El Decreto 607/2009, de 24 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, contempla una Viceconsejería de Transportes y Obras Públicas con tres direcciones, la Dirección de Transportes, la Dirección de Infraestructura del Transporte y la Dirección de Puertos y Asuntos Marítimos.

La Dirección de Transportes tiene atribuido, entre otras funciones, el ejercicio de las competencias de la Administración de la Comunidad Autónoma en materia de transporte aéreo, según señala el artículo 14.1.j).

Por su parte la Dirección de Infraestructura del Transporte tiene encomendada la iniciativa de elaboración y modificación de los planes e instrumentos de ordenación urbanística precisos para las actuaciones en materia de infraestructura del transporte terrestre y aéreo, artículo 15.1.d); la iniciativa de elaboración y aprobación de proyectos de infraestructura del transporte terrestre y aéreo, artículo 15.1.e); la dirección, inspección, y el control de la ejecución de infraestructura del transporte terrestre y aéreo, artículo 15.1.f); la expropiación de los bienes y derechos necesarios para la ejecución de las actuaciones en materia de infraestructura terrestre y aérea, artículo 15.1.h); la promoción de la investigación y el desarrollo tecnológico en materia de infraestructura del transporte terrestre y aéreo, artículo 15.1.j); la elaboración de los expedientes de los proyectos normativos referentes al Plan General de Carreteras del País Vasco, y de los Planes Sectoriales, así como la elaboración de los Avances y los proyectos de los citados Planes Sectoriales de Infraestructuras del transporte terrestre y aéreo, artículo 15.1.l); el seguimiento del Plan General de Carreteras del País Vasco, y de los Planes Sectoriales del Infraestructura del transporte terrestre y aéreo, artículo 15.1.o); la propuesta y preparación de los instrumentos de cooperación y de coordinación económica, técnica y administrativa de la Comunidad Autónoma del País Vasco con las demás administraciones territoriales en materia de carreteras, ferrocarriles y aeropuertos, artículo 15.1.r).

Bestetik, azaroaren 24ko 607/2009 Dekretuaren 16. artikuluak Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzaren egitekoak arautzen ditu.

Egitura-dekretuaren barruan aireportu eta heliportuekin zerikusia duten egitekoak beraz, banatuta daude Garraio Zuzendaritzaren eta Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzaren artean. Horiek horrela, komeni da saila hobeto egituratzea, eta aireportu eta heliportuen inguruko eskumenak, batzuen eta besteen artean banatu gabe, zuzendaritza bakar batean biltzea; eta arlo horiekin eta egitekoekin duten antzekotasuna kontuan izanik, eskumen horiek egun Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritza denari, eta aurrerantzean Portu eta Aireportuen Zuzendaritza izena hartuko duenari ematea. Era berean, Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzaren eskumenetan lurreko eta aireko garraio-azpiegiturak aipatzen diren orotan, lurreko garraiora mugatuko dira, eta Dekretuaren 14.1.j) artikuluko aipamena «aireko garraioaren inguruan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak dituen eskumenak» 16. artikulura pasako da, Portu eta Aireportuen Zuzendaritza berriaren egitekoetara.

Horren ondorioz, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2010eko azaroaren 30ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

***Lehenengo artikulua.***– 607/2009 Dekretuaren 2.A.4.c) artikulua honela uztea:

«c) Portu eta Aireportuen Zuzendaritza».

***Bigarren artikulua.***– 607/2009 Dekretuaren 14.1.j) artikulua ezabatzea.

***Hirugarren artikulua.***– 607/2009 Dekretuaren 15. artikuluko 1. puntuko c), d), e), f), h), j), l), o), eta r) idatz-zatiak honela uztea:

«c) Lurreko garraioaren azpiegituren gaineko lurraldearen arloko planak egitea, eta Garraio Zuzendaritzarekin lankidetzan aritzea Garraioaren Plan Zuzentzailea eta Lurraldearen Arloko Plana egiteko.

d) Lurreko garraioaren azpiegituretako jarduerak burutzeko behar diren hirigintza antolamenduko planak eta bestelako langaiak egin eta aldarazteko ekimena.

e) Lurreko garraioaren azpiegituretako proiektuak egin eta onartzeko ekimena.

f) Lurreko garraioaren azpiegituretako obrak zuzendu, ikuskatu eta kontrolatzea.

h) Lurreko azpiegituren arloan jardunak egikaritzeko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak desja-

El artículo 16 del Decreto 607/2009, de 24 de noviembre, regula las funciones de la Dirección de Puertos y Asuntos Marítimos.

Las funciones que tienen alguna relación con aeropuertos y helipuertos dentro del Decreto de Estructura están actualmente, por tanto, repartidas entre las Direcciones de Transportes y de Infraestructura del Transporte. Se procede, en consecuencia, a dotar al Decreto de una mejor sistemática, agrupándolas en una única Dirección, de manera que se eviten las dispersiones competenciales entre Direcciones, reuniendo todas las relacionadas con aeropuertos y helipuertos en una misma Dirección, la actual de Puertos y Asuntos Marítimos, que pasaría a denominarse Dirección de Puertos y Aeropuertos, dada la similitud de funciones y áreas de trabajo que tienen todas ellas. A su vez todas las menciones que se hacen actualmente dentro de la Dirección de Infraestructura del Transporte a la infraestructura del transporte terrestre y aéreo quedarían limitadas al transporte terrestre, y la genérica del apartado j) del punto 1 del artículo 14, «el ejercicio de las competencias de la Administración de la Comunidad Autónoma en materia de transporte aéreo», pasaría al artículo 16, completando así las funciones que pasa a ostentar la nueva Dirección de Puertos y Aeropuertos.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 30 de noviembre de 2010,

DISPONGO:

***Artículo primero.***– El artículo 2.A.4.c) del Decreto 607/2009 queda redactado de la siguiente manera:

«c) Dirección de Puertos y Aeropuertos».

***Artículo segundo.***– Se suprime el apartado j) del punto 1. del artículo 14 del Decreto 607/2009.

***Artículo tercero.***– Los apartados c), d), e), f), h), j), l), o), y r) del punto 1 del artículo 15 del Decreto 607/2009 quedarán redactados de la siguiente forma:

«c) La elaboración de planes territoriales sectoriales de infraestructura del transporte terrestre, colaborando con la Dirección de Transportes en la realización del Plan Director de Transportes y del Plan Territorial Sectorial.

d) La iniciativa de elaboración y modificación de los planes e instrumentos de ordenación urbanística precisos para las actuaciones en materia de infraestructura del transporte terrestre.

e) La iniciativa de elaboración y aprobación de proyectos de infraestructura del transporte terrestre.

f) La dirección, inspección y el control de la ejecución de infraestructura del transporte terrestre.

h) La expropiación de los bienes y derechos necesarios para la ejecución de las actuaciones en materia

betzea, Jaurlaritzaren Kontseiluaren eskumenak aparte utzi gabe.

j) Lurreko eta aireko garraioaren azpiegituraren alorreko ikerketa eta teknologia garapena bultzatzea.

l) EAEko Errepideen Plan Orokorra arautzeko proiektuen espedienteak eta lurreko garraioaren gaineko azpiegituren arloko planen aurrerapena eta proiektua egitea.

o) EAEko Errepideen Plan Orokorra eta lurreko garraioaren azpiegituren gaineko arloko planak gainbegiratzea, programa eta arau teknikoei dagokienez egoki burutzen ari den zaintzea eta plan hori behar bezala burutzeko beste administrazio batzuekiko koordinazioa sustatzea.

r) Euskal Autonomia Erkidegoaren eta gainontzeko lurralde administrazioen artean errepide eta trenbideei buruzko gaietako lankidetza eta koordinazio ekonomiko, tekniko eta administratiboa gauzatzeko bideak proposatu eta prestatzea».

***Laugarren artikulua.***– 607/2009 Dekretuaren 16. artikulua honela uztea:

«16. artikulua.– Portu eta Aireportuen Zuzendaritza.

1.– Dekretu honen 7. artikuluak oro har esleitzen dizkion eginkizunak bete behar ditu Portu eta Aireportuen Zuzendaritzak. Horiek ez ezik, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen esparruan, honako eginkizun hauen ardura ere hartu behar du zuzendaritza horrek:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari aireko garraioaren inguruan dagozkion eskumenak.

b) Portuko jabari publikoa antolatzea.

c) Autonomia Erkidegoaren portu- eta aireportu-azpiegituretako inbertsioen plangintza eta programazioa egin eta haiek mantentzeaz arduratzea, bai eta azpiegitura berrien plangintza egin eta garatzea ere.

d) Portuetako Lurraldearen Plan Sektoriala erredaktatu eta taxutzea; lurralde eta hirigintza planeamendu orokorra garatuz portu- eta aireportu-guneetako jabari publikoa osatzen duten zonaldeak antolatzeko edo azpiegitura obrak zuzenean egiteko planak erredaktatzea.

e) Portu- eta aireportu-gunean eragina izango duten hirigintza-planeamenduko tresnei buruzko txosten lotesleak egitea, aginpidedun hirigintzazko Administrazioak egindako txostenei buruzkoak, hain zuzen.

f) Onartutako plan eta programen barruan, halakorik balego, portu eta aireportuetako obra eta ins-

de infraestructura terrestre, sin perjuicio de las competencias del Consejo de Gobierno.

j) La promoción de la investigación y el desarrollo tecnológico en materia de infraestructura del transporte terrestre.

l) La elaboración de los expedientes de proyectos normativos referentes al Plan General de Carreteras del País Vasco, y de los Planes Sectoriales, así como la elaboración de los Avances y Proyectos de los citados Planes Sectoriales de Infraestructuras del transporte terrestre.

o) Efectuar el seguimiento del Plan General de Carreteras del País Vasco, y de los Planes Sectoriales de Infraestructura del transporte terrestre, velar por la idoneidad de su ejecución en cuanto a programas y normas técnicas, e impulsar la coordinación con otras administraciones cuando sea necesaria para la ejecución de los citados Planes.

r) La propuesta y preparación de los instrumentos de cooperación y de coordinación económica, técnica y administrativa de la Comunidad Autónoma del País Vasco con las demás administraciones territoriales en materia de carreteras y ferrocarriles».

***Artículo cuarto.***– El artículo 16 del Decreto 607/2009 queda redactado de la siguiente manera:

«Artículo 16.– Dirección de Puertos y Aeropuertos.

1.– En el ámbito de las competencias de la Comunidad Autónoma de Euskadi, corresponde a la Dirección de Puertos y Aeropuertos, además de las que con carácter general le atribuye el artículo 7 del presente Decreto, las siguientes funciones:

a) El ejercicio de las competencias de la Administración de la Comunidad Autónoma en materia de transporte aéreo.

b) La ordenación del Dominio Público Portuario.

c) La planificación y programación de inversiones en infraestructuras portuarias y aeroportuarias de titularidad autonómica y de su mantenimiento, así como la planificación y desarrollo de nuevas infraestructuras.

d) La redacción y formulación del Plan Territorial Sectorial de Puertos, así como la redacción de los planes de ordenación urbanística de las zonas portuarias y aeroportuarias previstos en el ordenamiento en desarrollo del planeamiento territorial y urbanístico o para la ejecución directa de obras de infraestructura.

e) Informar con carácter vinculante los instrumentos de planeamiento urbanístico general que afecten a las zonas portuarias y aeroportuarias redactados por la administración urbanística competente.

f) La iniciativa de redacción y la aprobación de proyectos y ejecución de las obras e instalaciones por-

talazioetarako proiektuak onartzea, haiek burutzea eta idazteko ekimena.

g) Portu- eta aireportu-azpiegiturako obra eta instalazioak egiten direla ikuskatu eta kontrol tekniko eta ekonomikoa gauzatzea.

h) Portu- eta aireportu-azpiegituren alorreko ikerketa eta teknologien garapena bultzatzea.

i) Desjabetze-ahalmena baliatzea Zuzendaritzari esleitutako jardunak egikaritzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluaren eskumenak bazter utzi gabe.

j) Zuzendaritzaren esku dauden gaiei ezarri beharreko legeria bete dadin, beste administrazioekin eta gainontzeko pertsona publiko nahiz pribatuekin behar diren hitzarmen eta lankidetza bideak proposatu eta burutzea.

k) Portuetako, aireportuetako eta heliportuetako zerbitzu guneak nola erabili behar diren arautu eta haien garapenaren plangintza eta programazioa egitea, lurraldea antolatzeko eta hirigintza planifikatzeko tresnen arabera.

l) Portu bakoitzaren zerbitzu eta zaintzari buruzko araudiak egitea eta araudi hori betetzen den zaintzea, eraginpean dauden administrazio eskudunekin koordinatuta.

m) Zuzendaritzaren esku dauden gaietako legeria hausteagatik zabaldu beharreko zigor-espedienteak izapidetzea.

n) Indarrean dagoen araudian aurreikusten diren portu eta aireportuetako zerbitzuak ematea, ordenamendu juridikoan arauturiko kudeaketaren bidez.

o) Portuko jabari publikoen gaineko emakidak eta baimenak eman, aldatu eta iraungitzeari buruzko espedienteak izapidetu eta haiei buruzko erabakiak hartze.

p) Portuetako eta heliportuetako jabari publikoa norberarentzat erabili edo haren ustiaketa berezia egiteagatik eta haietako zerbitzu orokor eta bereziengatik ordaindu beharreko tasen kopurua proposatzea eta haiek kitatzea.

q) Euskal Autonomia Erkidegoari itsas- eta ibaigarraioaren eta barruko ur nabigagarrien inguruan dagozkion eskumenak.

r) Itsas garraioko profesionalen birziklaketa eta hobekuntzarako irakaskuntzak, Sailaren eskumenekoak badira, Itsas Arduralaritza Eskolak ematen dituenak barne, azaroaren 5eko 616/1991 Dekretuari jarraituz; baita Eskola horren zerbitzu ezberdinek eskaintzen dituzten jardueren prezio publikoen zenbatekoen proposamena ere.

tuarias y aeroportuarias en el marco de los planes y programas aprobados, en su caso.

g) La inspección y control técnico-económico de la ejecución de obras e instalaciones de infraestructura portuaria y aeroportuaria.

h) La promoción de la investigación y el desarrollo tecnológico en materia de infraestructuras portuarias y aeroportuarias.

i) Ejercer la potestad expropiatoria para la ejecución de actuaciones atribuidas a la Dirección, sin perjuicio de las competencias del Consejo de Gobierno.

j) Proponer y ejecutar los convenios y los instrumentos de cooperación con otras administraciones y demás personas públicas o privadas para el cumplimiento de la legislación de aplicación a las materias propias de la Dirección.

k) Ordenar los usos de las zonas de servicio de los puertos, aeropuertos y helipuertos y planificar y programar su desarrollo de acuerdo con los instrumentos de ordenación del territorio y de ordenación urbanística.

l) La elaboración de los Reglamentos de Servicios y Policía de cada puerto, y la vigilancia de su cumplimiento en coordinación con las administraciones afectadas y competentes.

m) La instrucción de los expedientes sancionadores por infracción de la legislación aplicable a las materias propias de la Dirección.

n) Prestar los servicios portuarios y aeroportuarios previstos en la normativa vigente a través de las formas de gestión reguladas en el ordenamiento jurídico.

o) Tramitar y resolver los expedientes de otorgamiento, modificación y extinción de autorizaciones y concesiones referentes al dominio público portuario.

p) Proponer la cuantía de las tasas de puertos y helipuertos por utilización privativa o aprovechamiento especial del dominio público y por la prestación de servicios generales y específicos, así como su liquidación.

q) El ejercicio de las competencias que correspondan a la Comunidad Autónoma en materia de transporte marítimo y fluvial y aguas interiores navegables.

r) Las enseñanzas correspondientes al reciclaje y perfeccionamiento de los profesionales del transporte marítimo que sean competencia del Departamento, incluidas las impartidas por la Escuela de Administración Marítima conforme al Decreto 616/1991, de 5 de noviembre, así como la propuesta de cuantías de los recios públicos de las actividades que prestan los diferentes servicios de dicha Escuela.

s) Honako plan hauek landu eta onartzea: barne-larrialdietako planak, istripuen ondoriozko itsasoko kutsadura kasuetarako plana, portuetan ontzietako hondakinak biltzeko planak, eta itsasoko, ibaiko eta aireko garraioaren arloan araudiak eskatutako bestelako planak ere.

t) Itsasoko eta aireko garraioak Garraioaren Plan Zuzentzailean eta Sare Intermodalen Sisteman parte hartzeko proposamena egitea.

u) Zuzendaritzaren ardurapeko gaiei dagozkien diru-laguntzak nola eman proposatzea eta Kostaldearen Legeak arauturiko herri-lanak euskal itsasertzean egiteko beste administrazio batzuekiko elkarlanean jarduteko diru-laguntzak nola eman proposatzea.

v) Zuzendaritzarekin zerikusi zuzena duten azterlan estatistikoak, txostenak eta ikerketak egitea.

w) Itsas garraioari dagokionean, itsas garraioak Atlantiar Arkuaren Plataforma Logistikoan eta Garraioaren Plan Zuzentzailean parte hartu eta esku hartzeko proposamena egitea.

x) Zuzendaritzari dagozkion gaiei buruzko txosten, irizpen eta xedapen arauemaileen aurreproiektuen gaineko espedienteak burutzea.

y) Herri-lanak zuzendu edo ikuskatzeko adituen lana burutzeagatiko tasa orokorra edo Portu eta Aireportuen Zuzendaritzak ordainaraztekoa den beste edozein tasa kitatzea.

z) Lurralde zerbitzuek kudeatu dituzten tasa eta prezio publikoen kudeaketaren kontra aurkeztutako aukerako berraztertzeko errekurtsoak ebaztea.

2.– Garraio eta Herri Lanetako sailburuordearen zuzendaritzapean eta haren aginduei jarraiki, Portu eta Aireportuen Zuzendaritzak, gainera, Euskadiko Kirol Portua SA eta Zumaiako Kirol Portua SA sozietate publikoei administrazio-babesa eman eta haien kudeaketa ikuskatuko du, eta gauza bera egingo du Zuzendaritzari emandako ahalmenekin zerikusia duen beste sozietate publikorik sortuz gero».

***Bosgarren artikulua.***– 607/2009 Dekretuaren 18. artikuluko a), b), d) eta f) idatz-zatietan «Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritza» edo «zuzendari» aipamenen ordez, «Portu eta Aireportuen Zuzendaritza» edo «Portu eta Aireportuen zuzendari» behar du.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Dekretu hau indarrean jarri, eta sortutako zuzendaritza berriaren titularraren izendapenak ondorioak izaten hasten denean martxan dauden prozedura guztiak, Dekretu honetan ezarritakoaren arabera izapidetuko dira.

s) La elaboración y aprobación de planes de emergencia interior, planes de contingencia por contaminación marina accidental, planes de protección y planes de recogida de residuos procedentes de buques en los puertos, así como de aquellos otros exigidos por el ordenamiento en materia de navegación marítima, fluvial y aérea.

t) La propuesta de participación del transporte marítimo y aéreo en los Sistemas de Redes Intermodales y en el Plan Director del Transporte.

u) Proponer la articulación de subvenciones en materias propias de la Dirección, así como para la cooperación con otras administraciones para la ejecución en el litoral vasco de obras públicas reguladas en la Ley de Costas.

v) Desarrollar estudios estadísticos, informes e investigaciones relacionadas con las materias propias de la Dirección.

w) En relación con el transporte marítimo la propuesta de intervención y participación del transporte marítimo en la Plataforma Logística del Arco Atlántico y en el Plan Director de Transportes.

x) Elaborar los expedientes de anteproyectos de disposiciones normativas, dictámenes e informes en materias propias de la Dirección.

y) La liquidación de tasas de carácter general por realización de trabajos facultativos de dirección e inspección de obras públicas u otras tasas cuya exacción correspondiera a la Dirección de Puertos y Aeropuertos.

z) La resolución de los recursos de reposición potestativos que se interpongan contra actos de gestión de las tasas atribuidas a la Dirección llevados a cabo por los servicios territoriales.

2.– Bajo la superior dirección y conforme a las instrucciones del Viceconsejero de Transportes y Obras Públicas, la Dirección de Puertos y Aeropuertos ejercerá la tutela administrativa y la supervisión de la gestión de las sociedades públicas «Euskadiko Kirol Portua, S.A.», «Zumaiako Kirol Portua, S.A. «, así como de aquellas otras sociedades públicas que puedan crearse en relación con las facultades atribuidas a la Dirección».

***Artículo quinto.***– En los apartados a), b), d) y f) del artículo 18 del Decreto 607/2009 se sustituye la mención hecha a «Director» o «Dirección de Puertos y Asuntos Marítimos» por la de Puertos y Aeropuertos.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Todos los procedimientos en curso en el momento de la entrada en vigor del presente Decreto se tramitarán conforme a lo dispuesto por el mismo desde el momento en el que se haga efectivo el nombramiento del titular de la nueva Dirección creada.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko azaroaren 30ean.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 30 de noviembre de 2010.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

El Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.